

Menpekotasuna dutenentzat espreski sortutako finantza-baliabidea da, **egoitza bat ordaintzeko** beharra dutenean

Kutxabankek 'Pensium' eskainiko du adineko bezeroentzako produktu-bilduman

- **Beren ohiko etxebizitza alokatzean sortzen diren baliabide ekonomikoak aurreratzen dira, laguntzaren gastuak ordaindu ahal izateko**
- **Onuradunek 75 urtetik gorakoak eta menpekotasun egoeran bizi beharko dute, ez izan nahikoa bitarteko finantzario edo dauzkatenak ez erabiltzea erabaki**

2021eko ekainaren 14an. Kutxabankek 'Pensium' eskainiko du aurrerantzean adineko bezeroei zuzendutako produktu bilduman. Bitarteko finantzario honek **egoitza bat ordaintzeko baliabide ekonomikoak** ematen ditu, **jabetzan duten etxebizitza saldu gabe**, bermerik eta hipotekarik gabe.

Produktu honen ezaugarri nagusia honakoa da: hutsik gelditzen den etxebizitzak bere jabearen alde lan egiten du alokairu baten bitartez, **osorik Pensiumek kudeatua**, eta honek familiari behar duen dirua aurreratzen dio, hilabeteko alokairuaren bikoitza gehienez ere.

Pensium programa **finantzazio sistema** bat da, eta adineko pertsonei, menpekotasun egoeran bizi badira, **egoitza** bat ordaintzeko aukera ematen die, bertan egoiliar izateko beharra dutenean.

Ekarpenak programa sinatu bezain laster eskura daitezke. Aurreratutako zenbatekoa gero jasotzen diren alokairuekin berreskuratzen da.

Programa honetan onuradun izan nahi duten lagunek, menpekotasun egoeran daudela erakutsi beharko dute, edota ziurtagiria eskuratzeko eskaria egina izan beharko dute, alokairuan utz daitekeen etxebizitza baten jabe izan beharko dute, eta sinatzeko gai izan, botereen bitartez edota legezko tutore batekin, beharrezkoa bada.

Pensiumen abantaila nagusietako bat da adinekoak eta bere sendikoak etxebizitza berritzeaz, kaudimena duten maizterrak aurkitzeaz, alokairuaren ordainketa aseguruaz edota gertakizun eta konponketez ez direla arduratu behar. Zeregin hauek guztiak programak bere gain hartzen ditu.

Biztanlegoa etengabe zahartzen ari den testuinguruan, etxebizitza bat jabetzan duten edadetuei konponbide finantzario berritzailea eskaintzen die Pensiunek, laguntza-gastuei aurre egiteko gaitasunik ez dutenean.